

Sarajevon Izet Sarajlić

AURKEZPENA: JON KORTAZAR*

POEMEN ITZULPENA: JUAN KRUIZ IGERABIDE

ZUBIGILEAK: SINAN GUDŽEVIĆ, JON KORTAZAR BILLELABEITIA, JUAN VICENTE PIQUERAS

Maiz ikusten da poetaren hitzak hiriaren irudia sortzen duela, gure Arestirekin eta Bilboko kartografiarekin gertatzen den bezala. Horixe gertatzen da Sarajevo hiriarekin eta Izet Sarajlić poeta bosniarrarekin (Doboj, 1930-Sarajevo, 2002). Ezin da haren poesia irudikatu hiriaren izana kontuan hartu gabe. Hiri poesia da harena, hiriaren hitz bizia, haren geografia.

Gainera, Sarajlić abizenak sarajevotarra esan nahi du; beraz, guztiz erabatekoa da poetaren eta hiriaren arteko identifikazioa. Gabriel Arestik bezala, berak ere poesia soziala egin zuen, Nazim Hikmet poeta komunista maitatu eta haren aurretik egiten zuten poesiaren harrabotsa ukatu. Hizkera simple eta zuzena erabiliz, hitz poetikoaren alde jarri zuen bere luma.

Gaztelaniaz, poema bilduma bi aurkitu ditzakegu liburu dendetan, edo eskatu ditzakegu, hobe esateko, zeren liburu dendetara behar dena eskatzera joan ohi da, berri-berria dena ez bada erosi nahi, behintzat. 2013an,

Valparaíso Granadako poesia argitaletxeak *Sarajevo* liburua eman zuen ezagutzera, Fernando Valverderen eskutik, poetaren azken urteetako lanaren antologia zaindua. 2017an, *Después de mil balas* liburua plaza-ratu du Seix Barral argitaletxe ezagunak, Erri de Luca poeta italiarraren hitzaurrearekin.

Besotik helduta elkarri adorea emanaz doazen adiskideen antzera, liburu batek beste aberastu du, eta bigarrenak lehena osatu. Bosniako gerra piztu zenean, Izet Sarajlićek modua izan zuen Sarajevo utzi eta handik irteteko. Han geratu zen, eta, beraz, haren izena ez zen soilik hiriaren geografiari lotuta gelditu, hiriaren tragediara josi baitzen betiko. Gerraren minari eman zion ahotsa poetak. Eta minaren sena gogorra ageri du *Sarajevo* liburuan, hiriaren setioari hitza eman baitzion Sarajlićek. Kontatu da Karadzic beraren ikaslea izan zela, eta poeta izan nahi zuen Serbiako errepublikaren agintariak eta setioaren koordinatzaileak poesia errezitatzu janzten zuela triskantzara.

* Lan hau Eusko Jaurilaritzak bultzatzen duen Ikerketa Taldeen Sarean kokaturik dagoen eta Euskal Herriko Unibertsitateak onartu duen LAIDA (IT 1397-19, GIU 18/08) Ikerketa Taldearen eginkizunen barnean egin da.

1992tik 1996ra arte eta setioak iraun zuen 1.336 egunetan, Izet Sarajlićek samurtasunez eta maitasunez galdetzen zion bere buruari ea inguruan zuen heriotzaren, gerraren, triskantzaren, saminaren eta desolazioaren aurrean gizatasunari esperantza txiki bat emateko gai izango ote zen beraren hitza. Eta *Sarajevo* liburuak ederki erakusten du idazlearen alde konprometitu hori. *Después de mil balas*, ordea, hautapen historikoa da, eta beraren lehen poemak eta setioaren ondorengoak ere biltzen ditu.

Fernando Valverderen hitzaurrea historikoa da, eta oso ongi aurkezten digu poetaren historia. Gerra bi bizi izan zituen. Bigarren Mundu Gerran, anaia galdu zuen, faxista italiarrek fusilaturik. Bosniako gerran, arrebak galdu zituen, bere begien aurrean. Baina horregatik ez zuen Italia gorroto. Izet Sarajlićek bazekien banatzen italiarrak eta «alkandora beltzak». Haiek maite zituen, beste horiek ez. De Lucak, aldiz, hitzaurre poetikoagoa, literarioa idatzi du, poetaren erretratu zuzena emanez.

Idealistatza edo, behintzat, humanistatza ageri du poeta: «Nork betetzen du gaueko txanda munduaren bihotza bahitu ez dezaten? Geuk, poetok». Leialtasun zibilaren izenean geratu zen Izet Sarajlić Sarajevon, beraren hitzetan galdu zen mundu bat gordez, izena zuena aipatuz, hilko zituzten pertsonen hitza eta izaera emanez beraren poesian. Argia piztuz, infernuaren erdian... Kontsolamendurik ez dagoen tokian giza izaeraren oroimena gordez, betiere gerra ostean izango zen bidea agertuz.

Gerra ostean, baina, emaztea hil zitzaion poetari, eta berriro minak zuzen jo zuen ha-

ren poesia, min intimoak oraingoan, baina ez horregatik leunagoak. Berrero, zuzena da poeta, eta maitatu aditzaren gaurkotasuna aldarrikatu zuen poesian, maitatu aditzaren modu guztiak agerian utziz.

Laburra eta mingotsa, udako ekaitzak bezalakoa da haren idatzizko moldea. Nerudak idatzi zuen: «Bizi izan nintzela aitortzen dut / Aitortzen dut nik, / maiz hiltzen nintzela nire poemetan». Hilzoriko arnas txistu hori da Sarajlićen poesieren tonu nagusia, birrikak oxigenoa hartzeko gai ez balira bezala, esaldiko geldiuone bakoitzean lotu eta altxatzeko gai ez bagina bezala, begirada guztiek gauaren izpiritu batuko balute bezala.

Maitearen heriotzak –Ida Kalas emaztearen heriotzak– eman zion zertaz idatzi, udagoieneko hego haizearen argiek itolarria sortzen duten bezala. Haren minez bizi zen; nahiago zuen bera lehenago hil, baina ez zen horrela gertatu: «Heriotzari dei eta zurea baino lehenago nirea hel dadin. / Baina ez zen horrela gertatu». Bere bakartasun izoztutik ulertu zuen Sarajlićek hiriaren berunezko bakartasuna. Beraren tragedia hiriaren tragediaz bustitzen da, euriak sendo joko balu bezala.

«Giza leuntasuna/ Non zaude? / Agian / soilik liburuetan?», galdetu zuen poetak, eta liburuetatik kanpo zabaldu zuen begirada, adiskide izandakoei galdetzeko ea oraindik adiskide izaten jarraitzen zuten. Heriotza, eta hiri horretan jasotakoa, azken batean «maitasunaren azken unea» baita: desagerpenaren zoria.

Ezinbestean irakurri beharreko poeta: Izet Sarajlić, Sarajevoko idazlea, Sarajevo hiriaren aurpegi edertua.

Sarajevo

Orain gure hilezkorak ere lo daude.

Nesken eskolaren aurretik,
zubipean, hazita doa Miljacka ibaia.
Bihar igandea da.
Har ezazue lehen tranbia Ilidžara;
han ez du inoiz euririk egiten, hala da,
han ez du Sarajevoko euri aspergarri etengabea egiten.
Nork daki nola sentituko den Čabrinović hura gabe presondegian.

Guk madarikatu egiten dugu, biraoka,
baina darion bitartean
finkatzen ditugu amodiorako hitzorduak,
maiatzaren bihotzean bageunde bezala.

Guk madarikatu egiten dugu, biraoka,
jakinik Miljacka inoiz ez dela bihurtu ahal izango
ez Guadalquivir ez Sena.
Orduan hori aski arrazoi izango ote da zu gutxiago maitatzeko
edo zuri gutxiago sufriarazteko zoritxarraren aurrean?
Horren kariaz txikiagoa izango ote da zukanako dudan gosea,
txikiagoa izango ote nire eskubide samina
ez lo egiteko, mundua mehatxupean dagoen bitartean,
gerra dela eta, izurritea dela eta,
edo hitz posible bakarrak «ez ahaztu» eta «adio» diren bitartean?

Gainera, baliteke hau ez izatea hil behar dudan hiria.
Mereziko luke, hala ere,
ni lasaiago bat, paregabea.

Hiri honetan, egia esateko,
ez dut inoiz izan zorte handirik,
baina hemen gauza bakoitza neure dut,
eta beti maita dezaket zuetako bakoitza,
eta bakar larrian nagoela adierazi.

Beharbada Moskun egin nezake gauza bera,
baina Esenin hilik dago
eta Jevtuxenko Georgiako alderen batean ibiliko da bidaiari.

Nola eska nezake laguntza Parisen,
Villonen beraren deiari ere ez diote-eta erantzun?

Hemen, Sarajevon, laguntzaren beharrea gertatuz gero,
sahatsek ere, hirikide baititut,
jakingo dute zerk samintzen nauen.

Izan ere, hiri honetan, egia esan behar badut,
ez dut zorte handirik izan,
baina hemen curia, erortzen denean,
ez da soilik curia.

Nire gurasoen oporrak

Badira hamabost urte, irailero, hilaren 5ean, gurasoek maletak prestatzen dituztela, eta hor doaz, behar ez diren gauza mordoz zamatuta, Herceg Novi-n hamabost egun pasatzera. Aitak ezin du jasan itsasoa; ama ere ez da zale amorratua, baina urrundik ikus dezakete Mamila uhartea, urertzean aulki batean eserita; hantxe fusilatu zuten Ešo seme zaharrena 1942ko uztailaren 16an. Ziur nago amak gerezi-marmelada pixka bat eramaten duela pote batean. Ešok beti marmelada lapurtzen zuen sukaldetik. Hala, nire gurasoek Herceg Novi-ko arrats beheran begia tinkatzen dute semearen azken aterpe izan zen lurrean. Turismo beldurgarria, tristurarena. Inori ez diot opa.

Eso Ramadanović-i agurra

Edo mundua berehala
migratzaile hutsez populatuko da,
edo gizakien aberri
unibertsal bakarra bihurtuko da.

Ez dakit nola idatzi
beretarren atzetik joan dela Vancouver-era
gaur Eso Ramadanović ere.

Hala ere, joan, ez da joan.

Nik neuk lagundu nion joan den astelehenean
Ado Opić-en etxera.

Haren balkoian
maizter berri bat
jarria zen bizitzen.

Ez nuen ezagutu nahi izan,
ez dut haren adiskide izan nahi.

Eso,
maitatzen badakien gizona,
nire bizitzako poz handiena zen.
Orain ez dut adorerik pentsatzeko
zer galdu ote duen Vladimir-ek
hura joan delarik.

Orain gogoan dut
Kristoren adinarekin
Parisko Komuna kalera aldatu zenekoa,
gugandik oso gertu.
Gazte komunista zen;
Thiers-i ahaztu egin zitzaion hura hiltzea.

Zoragarria zen egunak hari begira
ematea, balkoian aulkiak margotzen ari zela;
horiz, Bojan-en gelarako zirenak;
gorriz, sukaldekoak;
beltzez, jangelakoak.

Beltzez margotu zituen aulki haietako baten gainean
idatzi nituen
hamar poema
bonbardaketa baten ondoren,
Sarajevoko gerrari buruzko nire koadernorako.

Orduan, ezerk ez gintuen banatzen,
artean ez zuen eztanda egin haren granadak;
geroago lehertuko zen,
hurrengo urteko otsailean,
1993an.

Metrailak egindako zauriekin,
Bojan senitarteko batzuekin Belgradera bidali ondoren,
urtea amaitzeko egun gutxi falta zirela, etxez aldatu zen.
Oso gutxi geratzen ziren ordurako:
Dervis Ramadanović mediku zaharra,
aurreko gerrako partisanoa,
Bojanen ohean etzanda; bazirudien
bigarren adore-domina irabazi nahi zuela.

Dervisen heriotzak, 1995eko martxoan,
dena aldatu du.
Bat-batean,
ez dut ezer egitekorik aurkitzen gehiago.

Ez dago beste inor izarak aldatu behar zaizkionik,
ez dago zartagina prestatu beharrik.
Zartaginaz ari naiz,
baina, egia esateko, negarrez ari naiz.

Pasternakek Marburgon inoiz negar egin ez zuen moduan dagit negar.

Gauza bat dira Werther gaztearen saminak,
filosofiako ikasle, etorkizuneko poeta errusiar handia,
eta oso bestelakoa herri baten patua.

Eta ni, pixkanaka, herririk gabe geratzen ari naiz,
hots,
ni neurik gabe.

Azken tangoa Sarajevon

1994ko martxoaren 8a.
Sarajevo maitekorrak ez du amore ematen.
Mahai gainean, *Sloga*-ko goizeko dantzarako gonbidapena.

Eta, jakina, hara goaz!

Nire galtzak maiztu samarrak daude
eta zure soinekoa ez da Via Venetokoa.
Baina ez gaude Erroman;
gu gerran gaude.

Etorri da Jovan Divjak ere. Uniformeagatik nabaritzen zaio
zuzenean datorrela lehen lerrotik.
Dantza eskatzen dizularik, nahasirik dirudizu.
Lehen aldia da general batekin dantza egiten duzula.

Jeneralak ez daki zer ohore egin dizun,
baina, egia esateko, zeuk egin diozu berari,
Sarajevoko dama ospetsuenarekin egin baitu dantza.
Baina, honako tango hau, gurea bakarrik da.

Nekatuta gaude, burua zorabiatzen ari zaigu.
Maite, amaitzera doa gure bizitza polita.
Egin negar, egin nahi baduzu; ez gaude Via Veneton,
eta baliteke hau izatea gure azken dantza.

Mrkovići-tik jaurtiriko granada

Badira hogeita hamar ordu
granadak
alde guztietatik erortzen zaizkigula.

Horietako bat
hegan igaro da
poema honen gainetik.

Mrkovićitik bota dute;
gerra baino lehen, bitxiloreak biltzen nituen han
maite dudan emakumearekin.

Juduen hilerrria

Abdulah Sidran-i

Kolpe hilgarrienak
Marindvor aldera
juduen hilerritik datoz.

Milošević mertzenarioak ez daki
Isak Samokovlija nor den ere,
eta haren hilobi gainean metrailadore bat kokatu du.
Ez daki, orobat, nor den erori berri den hori
beraren jaurtigaiek jo eta gero.

Berak, besterik gabe, hirian hiltzen duen biztanle bakoitzeko,
izan laguntza-postuko mediku bat,
izan autobus-gidari bat,
ehun marko aleman jasotzen ditu.

Zortea Sarajevo erara

Sarajevon,
1992ko udaberri honetan,
edozer gauza da posible.

Ogia erosteko ilaran zaudela,
ospitale batean esnatzen zara,
hanka bat moztuta.

Gero, zorte handia izan duzula ere onartzen duzu.

Kinzl tenienteordea oroituz

Bigarren Mundu Gerra
nostalgiaz oroitzera iritsi gara.

Izan ere,
alderaturik armada federal ohian zeuden ofizialekin,
Gestapoko Kinzl tenienteordea bera ere,
Sarajlić familiaren memorian betiko iltzaturik geratua
gizakiagan dagoen gauzarik gizagabeenaren irudi gisa,
hura bera ere ia gizaki zen.

Gizagaixo zorteduna

Ljubiša Maksimović-i

Gizon bat kaletik bueltan dator
kantari.

Ulertzekoa da;
berogailu baten hodia darama besapean.

Zorte handia du gizagaixo horrek.

Gutxienez bero egon daiteke
bonba edo granada baten metrailak
noiz joko zain.

Vlado Dijak-i

Eskerrak, Vlado: Bari-n zaude!

Pudlugovi-n eta Sarajevon
taberna guztiak itxita daude.

Bosnian grappa bat topatzea
askoz ere zailagoa da
heriotzarekin topo egitea baino.

Sarajevo

Sad nek spavaju svi naši i besmrtni.
Pod mostom, kraj “Druge ženske” nabujala Miljacka teče.
Sutra je nedelja. Uzmite prvi tramvaj za Ilidžu.
Naravno pod predpostavkom da ne pada kiša.
Dosadna duga sarajevska kiša.
Kako li je bilo Čabrinoviću bez nje u tamnici!
Mi je preklinjemo, psujemo, a ipak dok pada
zakazujemo ljubavne sastanke kao da smo u najmajskijem maju.
Mi je proklinjemo, psujemo, svjesni da od nje nikad
Miljacka neće postati ni Gvadalkivir ni Sena.
Pa šta? Zbog toga zar manje će te voljeti
i mučiti manje kroz stradanja?
Zbog toga zar manja biće moja glad
za tobom i manje moje gorko pravo
da ne spavam kad svijetu prijete kuga ili rat
i kad jedine riječi postaju “ne zaboravi” i “zbogom”?

Uostalom, možda ovo i nije grad u kome ću umrijeti,
ali u svakom slučaju on je zaslužio jednog neuporedivo vedrijeg mene,
ovaj grad u kome možda i nisam bio najsrećniji,
ali u kome je sve moje i u kome uvijek mogu
naći barem nekog od vas koje volim
i reći vam da sam tužan do očajanja.
U Moskvi to bih isto mogao, ali Jesenjin je mrtav
a Jevtusenko siguno negdje u Gruziji.
U Parizu kako da zovem hitnu pomoć
kad se ona nije odazvala ni na pozive Vijona?
Ovdje zovnem li i topole svoje sugrađanke,
i one čak znaće šta je to što me boli.
Jer ovo je grad u kome možda i nisam bio najsrećniji,
ali u kome i kiša kad pada nije prosto kiša.

Turizam moji starih

Već petnaest godina, svakog 5. septembra,
moji starci se pokupe i natovareni mnoštvom nepotrebnih stvari
odu na petnaestodnevni odmor u Herceg Novi.

Otac more ne podnosi,
a ni majci baš mnogo ne prija,
ali zato predveče mogu dugo sjediti na nekoj klupi pored obale
i gledati u pravcu Mamule, na kojoj je, 16. jula 1942. godine,
strijeljan njihov prvijenac Ešo.

Ja sam siguran da majka u bošči ponese i malo slatka od trešanja,
Ešo ga je uvijek krao iz kuhinje.
I tako, sjede moji starci u hercegnovskom predvečerju
i gledaju u tu tačku koja je bila mjesto Ešinog posljednjeg boravka na
zemlji.
Užasno tužan je turizam mojih starih.
Nikada nikome takvoga!

Oproštaj s Esom Ramadanovićem

*ili će u budućem svijetu
živjeti jedino emigranti
ili će svijet morati da postane
jedinствена domovina ljudi...*

Kako da napišem da je za svojim
u Vankuver
otišao i Eso Ramadanović?
A - otišao je.
Sâm sam ga prošlog ponedjeljka
ispratio do kuće Ade Opića.

Na njegovom balkonu
već se
eno
šepuri novi stanar.
Ne želim da vidim
tog novog stanara.
Prijateljstvo njegovo -
ne želim.
Eso,
čovjek koji voli,
bio je velika radost mog života.
O tome šta je njegovim odlaskom
izgubio Vladimir -
ne smijem
u ovom trenutku ni da razmišljam.
Ja ga se sjećam
kad je
u Isusovim godinama
iz ulice Pariske komune
doselio kod nas na Koševo.
Mladi komunar
koga je Tjer zaboravio da ubije.
Bilo je divno
danim
gledati ga
kako na balkonu farba stolice:
u žuto - za Bojanovu sobu,
u crveno - za kuhinju,
u crno - za trpezariju.
Na jednoj od tih u crno prefarbanih stolica
ja sam,
nakon granatiranja,
napisao desetak pjesama
za "Sarajevsku ratnu zbirku".
Nada je još bila tu.

Njena granata
još nije bila eksplodirala,
eksplozivna tek u februaru sljedeće, 1993. godine.
S ranama zadobijenim od gelerâ te granate
Nada,
pošto je prethodno svojim u Beograd
otpremila Bojana,
izmiještena je nekako uoči same nove godine.
Tu je međutim još bio stari doktor Derviš Ramadanović,
prvoborac onoga rata,
koji je, prikovan za krevet u Bojanovoj sobi,
mislio da odrađuje svoju drugu spomenicu.
Derviševa smrt u martu 1995. godine
sve je
promijenila.
Prekonoć
Eso više nije imao
šta da radi.
Više nije imao kome
da mijenja posteljinu
niti da podmeće gusku.
Govorim o guski,
a zapravo plačem.
Plačem kako nikada Pasternak
nije plakao u Marburgu.
Jedno su međutim patnje mladog Vertera,
studenta filozofije, budućeg velikog ruskog pjesnika,
drugo sudbina naroda.
A ja, malo-pomalo, ostajem bez naroda.
A to znači
i bez sebe.

Posljednji tango u Sarajevu

Devedeset četvrta, 8. mart.
Ljubavno Sarajevo se ne predaje.
Na stolu pozivnica za plesni matine u Slozi.
Naravno, idemo!
Pantalone su mi prilično ofucane,
a ni tvoja suknja nije za Via Veneto.
Ali mi nismo u Rimu,
mi smo u ratu.
Evo i Jovana Divjaka. Po čizmama mu se vidi
da je došao pravo s prve linije.
Dok te moli za ples, ti si malčice zbunjena.
Prvi put plesaćeš s jednim generalom.
General i ne zna kakvu ti je čast učinio,
a, bogami, i ti generalu.
Plesao je s najopjevanijom damom Sarajeva.
Ali ovaj tango – on je samo naš!
Od iscrpljenosti malo nam se vrti u glavama.
Mila, prođe i naš život veličanstveni.
Plaći, samo plaći, nismo na Via Veneto
a ovo je možda i naš posljednji ples.

Granata sa Mrkovića

Već trideseti sat kako smo
sa svih strana
zasuti granatama.

Jedna upravo ovog časa
prolijećeiznad moje pjesme.

Ova je s Mrkovića
gdje sam prije rata
s onom koju volim
brao margarete.

Jevresko groblje

Abdulahu Sidranu

Najsmrtonosniji hici
u pravcu Marindvora
dolaze s Jevrejskog groblja.
Ne zna Miloševićev plaćenik
ni ko je Isak Samokovlija
iza čije je grobnice postavio svoj mitraljez,
ni ko je taj ko je upravo pao
pogođen njegovim hicima.
On, jednostavno, za svakog ubijenog žitelja grada,
bio on ljekar Hitne pomoći
ili vozač Gradskog saobraćaja,
dobije po stotinu njemačkih maraka

Sreća na sarajevski način

U Sarajevu
proljeća 1992. godine
sve je moguće;
staneš u red za hljeb
i završiš na Traumatologiji
sa odsječenom nogom.

Poslije toga još kažeš
da si imao sreće

Sjećajući se poručnika Kincla

Ispada tako
da se čovjek sa nostalgijom sjeća drugog svjetskog rata.

U svakom slučaju
u poređenju s oficirom bivše JNA
čak i jedan poručnik Kincl,
koga su Sarajlići zapamtili za čitav život,
gestapovsko oličenje svega neljudskog u čovjeku,
ličio je gotovo na čovjeka.

Sretni nesretnik

Ljubiši Maksimoviću

Ide ulicom čovjek
i - pjeva.
Kako i ne bi
kad pod pazuhom nosi sulunare!
Sretni nesretnik!
Prije nego što ga nađe
njegovo parče granate
on će se barem ogrijati

Vladi Dijaku

Dobro je, Vlado, da si na Barama!

U Podlugovima i u Sarajevu
svi bifei zatvoreni.

U Bosni
doći do čašice rakije
neuporedivo je teže
nego doći do sopstene smrti.

Resumen

Tal y como señala el profesor Jon Kortazar en el artículo, resulta imposible imaginar la poesía del poeta bosnio Sarajlić sin tener en cuenta la esencia de la ciudad de Sarajevo. La poesía de Izet Sarajlić es, en opinión de Kortazar, una poesía urbana, palabra viva de la ciudad, su geografía. Del mismo modo en que Aresti configuró una cartografía de Bilbao, las palabras Sarajlić parecen conformar la imagen de la ciudad. El apellido Sarajlić quiere decir sarajevense; por tanto, poeta y ciudad se compenetran absolutamente. De nuevo en paralelo con Aresti, también el poeta bosnio hizo poesía social, y mediante un lenguaje simple y directo, puso su pluma a favor de la palabra poética.

Résumé

Comme le dit le professeur Jon Kortazar dans cet article, il est impossible d'imaginer la poésie du poète bosniaque Sarajlić sans prendre en compte l'essence de la ville de Sarajevo. La poésie de Sarajlić est une poésie urbaine, elle est la parole vivante de la ville, sa géographie. La parole du poète semble constituer l'image de la ville, tout comme Aresti avait réalisé la cartographie de Bilbao. Le nom de famille Sarajlić signifie *Sarajévien* ; le poète et la ville sont donc totalement imbriqués. Comme Gabriel Aresti, Sarajlić a également fait de la poésie sociale et, par le biais d'un langage simple et direct, il a mis sa plume au service d'une parole poétique.

Abstract

As Professor Jon Kortazar states in this article, it is impossible to imagine the poetry of Bosnian poet Sarajlić without bearing in mind the very essence of the city of Sarajevo. Sarajlić's poetry is an urban poetry, the living word of the city, its geography. The poet's words seem to create the image of the city, as Aresti's composed the cartography of Bilbao. The family name Sarajlić means Sarajevan; thus, the identification between the poet and the city is absolute. Like Gabriel Aresti, Sarajlić also wrote social poetry. Using simple and direct language, he fixed his pen on the poetic word.